



Aitortu beharra daukat. Inoiz ez dut izan esperantza askorik psikofonia bat lortzeko. Baina hala ere horiek lortzen saiatu naiz behin baino gehiagotan. Eta ia beti, zelan ez, leku “berezi” batera egindako txangoetan. Otsate, Atxondoko basetxea, Unbe Gana Aralargo Santutegia... horrelakoetan txorien kanta eta haizearen soinua erregistratzea baino ez dut lortu. Esan beharrik ez dago soinu horiek ere guztiz interesgarriak direla, eta txikitan nuen ornitologiaren inguruko zaletasuna berpizten lortu dutela.

Neskalagunak debekatuta dit gure etxean esperimentu psikofonikorik egitea. *Badaezpadan ere*. Berak jende askok gai hauekiko mantzentzen duen jarrera bera agertu du beti. Nik izen bat daukat horretarako. “Badaezpadakoaren teoria”. Ez da ziurrenik soziologia liburuetan sartuko den kontzeptua, baina nahiko adierazgarria dela ezin uka.


Txantxak aparte utzita, argi dagoena da gehienetan psikofoniek benetako ikara sarrarazten ditugutela. Euskadi Irratian jarri ditugunean jakin badakigu jende askok benetako beldurra pasatu duela. Kaiako zenbait irakurlek ere psikofoniek

izandako esperientzia helarazi digute. Beti ere zirrara berezia sorrarazten duen fenomeno da, agian zuzenean misterioarekin aurrez aurre topo egiten dugulako.

Ahots paranormalak

Kaia agerkaria inauguratu zuen Otsateri buruzko artikuluan fenomeno honen historiaren inguruko zertzelada batzuk marraztu genituen. Oso gainerik komentatu genuen zelan Friederich Jürgensonek lortu zituen lehen psikofoniak. Baina gauzak ondo zehazteko, esan beharra dago Jürgenson baino lehen zenbait aurrekari izan zirela, gehienbat espiritismoaren inguruko mugimenduetan.

Orain arte erabili dugun terminoa bera ere ez da guztiz zehatza. Normalean “psikofonia” gisa izendatzen ditugu, baina badira bestelako terminoak nahiago dituztenak. Horrela, askok parafo-nema izendatzen dituzte, edota ingelesetik hartutako Electronic Voice Phenomena-ren akronimotik, “EVPak”. Psikofonia terminoak psikean kokatzen du fenomenoaren abiapuntu, eta hau ez da guztien gustoko.



Lagun askok irudien zaratan psikoirudiak bilatzen ditu

Transkomunikazio instrumentalaren munduan dabilzanek “transaudio” gisa ezagutzen dituzte ahots horiek. Teknika sorta hau lantzen dutenak gure errealtatetik harantzago ustez dauden entee-kin kontaktua izaten saiatzen dira, eta horretarako teknologia erabiltzen dute. Eta ez pentsa soilik soinu kontuetan geratu direnik. Horrela, psiko-foniak ezezik, psikoirudien bila abiatu da lagun asko eta asko. Ustez beste errealtate batean diren enteen irudiak lortzen saiatzen dira, eta horretarako oso metodo bitxiak erabiltzen dituzte. Gainetik azalduta, bideokamera batez telebista pantaila batean agertzen den “zarata” grabatzen dute, eta hortik inteligentzia baten irudia topatzeari ekiten diote.

Orohar gertaera paranormal askorekin gertatzen dena errepikatzen da hemen ere. Jendearen artean hipotesirik ezagunena “transzendentala” izenda genezakeena da. Hipotesi honek hildakoen arimen ahotsarekin parekatzen ditu psikofoniak. Baina bestelako teoria asko proposatu dira fenomeno berezi honen misterioa argitu nahian. Hauen oinarria psikean dagoela diote batzuk. Beste batzuk, aldiz, ezagutzen ez dugun arrazoiak direla eta zenbait tokitan txertatuta geratzen diren soinuak direla proposatzen dute. Edota bentrilokia inkontzientea arrazoi gisa proposatzen dutenak. Hauen ustez konturatzeke sabelhiztunarena egiten dute zenbait pertsonak, ahots kordak konturatu gabe mugitzen dituztelarik.

Zer egin

Ahots hauen jatorria non dagoen ezbadakigu ere, horiek lortzen saiatzea interesagarri izan daiteke. Baina zein da psikofoniak lortzeko metodoa? Nahi dugun bezain konplikatu izan daiteke, baina baita oso sinplea ere. Grabagailu bakar bat nahikoa zaigu psikofoniak lortzen saiatzeko. Esperimentua egiteko leku lasai bat aukeratu ondoren, erabili gabeko zinta ala diska jarriko dugu grabagailuan. Kanpoko mikrofonoa eskura izanez gero, askoz hobeto, horrela grabagailuak berak sorrarazitako zarata ekidituko baitugu. “Record” sakatu, eta ondoren isiltasuna mantenduko dugu, bizpahiru minutuz. Entzuten ditugun zarata guztiak papertxo batean apuntatuko ditugu. Behin hori egin dugula, zintan grabazioa arreta handiz entzuteko une erabakiorra heldu zaigu...

Eta egin berri dugun grabazio horretan normala ez den zeozer topatuko bagenu? Lehenik eta behin soinu edo ahots hori jatorri ezagunik ez duela ziurtatzen saiatuko gara. Pertsona batek baino gehiago grabazioa entzuten badu hobe, horrela bertan zer esaten den argitzea errazagoa egingo zaigu. Adituren bati psikofonia hori helarazita beste pisuzko iritzia jasoko dugu.

Ahots horiek mezu zehatzaren bat utziko balute, adituen aholkua argia da: lasaitasuna mantendu eta ez egin jaramonik esaten denari. Izan ere, gertaera “paranormaltzat” jotzen ditugunak ez dira arriskutsuak, baina gizakiok geure buruarekin egin ditzakegunak bai.

Juanma Gallego